AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1778

EBAZPENA, 2012ko apirilaren 16koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduran eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozeduran onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin betiko zerrenda onartzen duena.

2012ko otsailaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman zen 2012ko otsailaren 10eko Agindua; horren bidez deitu egin ziren, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozedura.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2012ko martxoaren 16ko Ebazpenaren bidez onartu zen aipatutako prozeduretan onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda.

Deialdiaren 4. oinarriak 3. atalean xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrendaren kontra aurkeztutako erreklamazioak onartu edo atzera bota ondoren, Langileriaren Kudeaketako zuzendariak ebazpena emango du, onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin betiko zerrenda onartuta geratzen dela aditzera emateko.

Horregatik guztiarengatik, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduran eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozeduran onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin betiko zerrenda. Kanpoan utzitakoen kasuan, kanpoan utzi izanaren arrazoia zein den adierazi beharko da.

2. artikulua.– Zerrenda horiek Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Internet-eko helbideetan (http://www.irakasle.net eta http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) argitara ematea.

3. artikulua.– Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio, onartutakoen eta kanpoan utzitako izangaien behin betiko zerrendaren kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 16a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.